

EGILEA

Patricia García-Rojo

IRUDIGILEA

Alejandro Villén

GAIAK

Adiskidetasuna. Ingurumena. Kontsumorako hezkuntza. Animaliak. Erantzukizuna. Irudimena eta sormena. Umorea. Talde-lana

GAITASUNAK

Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Ekintzaitetza-gaitasuna

BESTE ARLOEKIKO LOTURA

Arte Hezkuntza (Plastika)

ORRIALDE-KOP.: 64



# Oso lapurreta irristakorra

*Eta bat-batean... garbi!*

## ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Abenturaz beteriko istorio bat kontatzen duelako, zabor artean bizi diren alegiazko izaki txiki batzuei buruzkoa. Oso kontakizun dibertigarri baten bidez, higiena zaintzea eta ingurua errespetatzea zeinen garrantzitsua den azpimarratzen duelako. Testuaz batera oso irudi atseginak eta adierazkorrak dituelako, eta irudi horiek irakurleengan pertsonaie-kiko interesa eta gertutasuna sustatuko dutelako.

## ARGUMENTUAREN LABURPENA

Garbi egotea sekulako trazitioa da ugerren munduan. Beraz, Likits, Orban, Koipetsu eta Lizun ugerrek plan bat behar dute, Ro lagunari xaboa kentzeko, eta, hala, Uger erregearen haserrea baretzeko. Rok, ordea, Tina bere lagun gizakiarekin batera, atzetik jarraituko die batetik bestera, neskatoak tamaina aldatu eta kaskarrekoak hartu bitartean. Rok beste animalia batzuen laguntza ere beharko du ugerren arrastoari jarraitzeko. Lapurrek ibaian barrena ihes egingo dutenez, garbi-garbi eta aparrez beteta geratuko dira azkenean.

## NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Irakurle-mota guztientzat; izan ere, istorio erraza izateaz eta ilustrazio adierazgarriak edukitzeaz gain, umore-ukitua ere badu, eta horrek irakurle uzkurrena ere erakarriko du. Horrez gain, baliagarria izango da ikasgelan higie-ne-ohiturak sustatzeko ere.

## JARDUERA-PROPOSAMENA

### BAKARKA

Eskatu ikasleei istorioa **bost** edo **sei** hitz erabiliz laburtzeko. Atentzioa gehien eman dieten pertsonaiak, gertaerak, gaiak edo beste edozer aipa dezakete (adibidez, *ugerrak, plana, xaboa, lapurreta, animaliak, jazarpena, lapurrak, aparra, garbitasuna, abestia*, etab.). Gero, idatzi arbelean hitz guztiak, denon artean laburpen osoago bat egiteko.

### TALDEKA

Proposatu ikasleei **pertsonaiak** asmatzen jolastea. Horretarako, idatzi paper-zatietan istorioko pertsonaia guztien izenak (*Tina, Ro, Uger erregea, Likits, Orban, Koipetsu, Lizun, azeria, inurriak, saguak, Sator jauna* eta *igarabak*), eta sartu denak kaxa batean. Gero, ikasleek paper bana hartuko dute txandaka, eta egokitu zaien pertsonaia antzetzu beharko dute (keinu bidez edota arrasto laburrak emanez). Gainerako ikasleek nor den asmatu beharko dute.

### BINAKA

Binaka, animatu ikasleak **garbiketamisio** bat betetzera. Horretarako, bikote bakoitzak leku bat aukeratuko du (*bere logela, bere idazmahaia, jostailuen kaxoi bat, apalategi bat, armairu bat*, etab.), eta leku horren bi argazki ateratu beharko ditu –bata txukundu aurretik, eta bestea ondoren–, zer desberdintasun dauden ikusteko eta horiei buruz hitz egiteko. Gero, hitz egin denon artean, prozesua nolako izan den azaltzeko eta gure ingurua txukun eta ordenatuta nola eduki daitekeen jakinarazteko (*balio ez duena bota edo birziklatzea, objektuak sailkatzea, erabiltzen ez diren gauzak oparitzea*, etab.).

### ARTE HEZKUNTZA (PLASTIKA)

Roren magiari esker, pertsonaiak hainbat lekutan ager eta desager daitezke. Eskatu ikasleei **zer lekutara teleportatu nahi luketen** pentsatzeko. Esan benetako leku bat edo alegiazko bat izan daitekeela, eta bakarrik edo beste pertsona batzuekin ager daitezkeela. Pentsatu ondoren, adieraz dezatela ideia hori **marrazki** baten bidez, eta apaindu dezatela nahieran.



## IDAZKETA-TAILERRA

Ro gai da satorrarekin, azeriarekin, sagueekin eta inurriekin komunikatzeko, animalia guztien hizkuntza hitz egiten baitu. Esan ikasleei ugerren lekuan jartzeko, eta **asmatu dezatela elkarriketa bat** beren maskotarekin (*txakurra, katua, hamsterra, arraina*, etab.), edo beren animalia gustukoenarekin (*lehoia, krokodiloa, izurdea*, etab.), edo alegiazko izaki batekin (*yetia, adarbakarra, itsaslamina, hipogrifoa*, etab.), edota desagerturiko espezie batekin (*dinosaurioa, mamuta, labana-hortz tigre*a, etab.). Norekin hitz egingo dute? Zer galde-tuko diote? Izango al dute gizakien kezarik?